



MINISTERIO DE
TRABAJO, MIGRACIONES
Y SEGURIDAD SOCIAL

ORGANISMO ESTATAL INSPECCIÓN DE
TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL
LAN ETA GIZARTE SEGURANTZAKO
IKUSKARITZA ESTATUKO ORGANISMOA

INSPECCIÓN PROVINCIAL DE BIZKAIA
BIZKAIKO IKUSKARITZA PROBINTZIALA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

LAN ETA JUSTIZIA
SAILA
Bizkaiko Lan Ikuskaritza

DEPARTAMENTO DE TRABAJO
Y JUSTICIA
Inspección de Trabajo de Bizkaia

ZERBITZU AGINDU ZKIA. Nº ORDEN DE SERVICIO: **48/0002883/19**

HARTZAILEA/DESTINATARIO:

**ERREKERIMENDUA PROPOSAMENA /
PROPUESTA DE REQUERIMIENTO**

ENPRESA/ EMPRESA: EUSKO JAURLARITZA-GOBIERNO VASCO

IFK,IFZ/CIF,NIF: S4833001C

JARDUERA/ACTIVIDAD: ORDEN PUBLICO Y SEGURIDAD

LAN ZENTRUA/CENTRO DE TRABAJO: COMISARIA ERTZAINZA
GETXO

GURE ERREF./ NTRA. REF.: AH0036 CONTROL DE LAS
CONDICIONES DE SEGURIDAD EN CENTROS DE TRABAJO

GAIA/ASUNTO: ERREKERIMENDU PROPOSAMENA/

PROPUESTA DE REQUERIMIENTO

3H Dirección de Recursos Humanos
División de Prevención Laboral
TB SEGURTASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD

9 JUL 2019

2019 JUL: 04

SARRERA

IRTEERA

Zkia. 676E1900708

Zkia. SARRERA

IRTEERA

Zk. 567348

Zk.

**LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNARI BURUZKO
ERREKERIMENDU PROPOSAMENA, LANEKO
ARRISKUEN PREBENTZIOARI BURUZKO AZAROAREN
8KO 31/1995 LEGEKO 45 ARTIKULUAN
XEDATUTAKOAREN ARABERAKOA**

Behean sinatzen duen lan ikuskatzaileak, Lan eta
Gizarte Segurantzako Ikuskaritza-Sistema Arautzen
duen uztailaren 21eko (Uztaliaren 22ko BOE) 23/2015
Legeak ematen dizkion eskumenez baliatuz, honakoa
adierazten du:

-2019ko maiatzaren 29an Getxoko Ertzain-
etxea bisitatuta da (Aiboa kalea 13, Getxo).

Hain zuzen ere, zaintzako ikerketa
uniformedunen bulegoa eta salaketa-gelak bisitatu
dira. Bisitan Aitor Gorospe Pérez jauna, ELA
sindikatuko prebentzioko ordezkaria, eta Jon

EUSKO JAURLARITZA-GOBIERNO VASCO
CALLE DONOSTIA, 1
01010 VITORIA-GASTEIZ



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

LAN ETA JUSTIZIA SAILA
Bizkaiko Lan Ikuskaritza
DEPARTAMENTO DE TRABAJO Y JUSTICIA
Inspección de Trabajo de Bizkaia

2019 JUL: - 1

7379

SARRERA

IRTEERA

Zk.

Zk. 264461

**PROPUESTA DE REQUERIMIENTO EN MATERIA DE
SEGURIDAD Y SALUD EN EL TRABAJO DE
CONFORMIDAD CON LO DISPUESTO EN EL ARTÍCULO
45 DE LA LEY 31/1995 DE 8 DE NOVIEMBRE DE
PREVENCIÓN DE RIESGOS LABORALES**

El/la Inspector/a de Trabajo y Seguridad Social que
suscribe, en uso de las facultades que le otorgan la
Ley 23/2015, de 21 de julio, Ordenadora del Sistema
de Inspección de Trabajo y Seguridad Social (B.O.E. de
22 de julio), hace constar:

-Con fecha 29 de mayo de 2019 se gira visita a
la Comisaría de la Ertzaintza del municipio de Getxo,
situado en la C/Aiboa, nº 13, en Getxo.

Se visita concretamente la zona donde está
ubicada la oficina de investigación uniformada de
guardia, y las salas de denuncias. La visita se realiza en
compañía de D. Aitor Gorospe Pérez, delegado de

ZERBITZU AGINDU ZKIA. Nº ORDEN DE SERVICIO: **48/0002883/19**

Goiricelaya Ribacoba jauna, ELA sindikatukoa, izan dira. Bisita egin denean ikerketa-bulegoan egon diren ertzainekin hitz egin da.

-Bisitan zehar Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailera bidalitako zitazio ofiziala aurkeztu da; bertan eskatzen zen 2019ko ekainaren 6an Lan Ikuskaritzaren Bilboko bulegoetan agertzeko. Egun horretan honako hauek agertu dira: Miriam Cabarga Gutiérrez andrea, Prebentzio Zerbitzuko, eta Alfonso Apellániz González jauna, Prebentzio eta Lan Osasuneko Alorreko burua.

Agiri hauek aurkeztu dira:

- Ertzaintzaren Prebentzio Zerbitzuak 2019an egingo dituen jardueren plana.
- Getxoko instalazioetako arrisku orokorren ebaluazioa (2013ko urtarrilekoa).
- “LAP: BIDEA” lanpostuko arriskuaren ebaluazioa, 2019ko maiatzekoa.
- Getxoko Ertzain-etxeko ikerketa uniformedunen bulegoaren segurtasun-ikuskapenaren txostena, 2019ko maiatzaren 24koa (Ertzain-etxeko instalazioak 2019ko maiatzaren 9an bisitatu ziren).
- Getxoko Ertzain-etxeko ikerketako lan-eremuaren segurtasun-ikuskapenaren txostena, Segurtasun Saileko Prebentzio Zerbitzuak 2015eko urriaren 20an egin.
- Getxoko Ertzain-etxearen ergonomia-ikuskapenaren txostena, 2015eko maiatzaren 6an eginda.

Bisitan honako hauek egiaztatu dira zentroko lan-giroaz:

prevención del Sindicato ELA, y de D. Jon Goiricelaya Ribacoba, del Sindicato ELA. Se entrevista a los agentes que en el momento de la visita se encuentran en la oficina de investigación.

-Durante la visita se entrega citación oficial dirigida al Gobierno Vasco-Departamento de Seguridad, en la que se requiere la comparecencia el día 6 de junio de 2019 en las oficinas de la Inspección de Trabajo situadas en Bilbao. Comparecen en la fecha indicada D^a. Miriam Cabarga Gutiérrez, del Servicio de Prevención y D. Alfonso Apellániz González, Jefe de División de Prevención y Salud Laboral.

Se aporta la siguiente documentación:

- Planificación de actividades del Servicio de Prevención de la Ertzaintza de 2019.
- Evaluación de riesgos generales de las instalaciones de Getxo (de enero de 2013).
- Evaluación de riesgos del puesto “PRL: BIDEA”, de mayo de 2019.
- Informe de inspección de seguridad realizada a la oficina de investigación uniformada de la Ertzain-Etxea de Getxo, fechada el 24 de mayo de 2019 (correspondiente a visita realizada en las instalaciones del centro el 9 de mayo de 2019).
- Informe de inspección de seguridad realizada el 20 de octubre de 2015 por el Servicio de Prevención del Departamento de seguridad del área de trabajo de investigación de la Ertzain-Etxea de Getxo.
- Informe de inspección de ergonomía de 6 de mayo de 2015 de la Comisaría de Getxo.

Durante la visita se comprueba lo siguiente en cuanto a las condiciones del centro de trabajo:

ZERBITZU AGINDU ZKIA. Nº ORDEN DE SERVICIO: **48/0002883/19**

Bisitan "zaintzako ikerketako uniformedunen bulegoa" ikuskatu da; bertan hiru txandatan aritzen dira ertzainak: goizean, arratsaldean eta gauean. Bisita-egunean lan-zentroan egon diren ertzainek azaldu dute langile gehien aritzen diren txanda goizekoa dela, batzuetan 5 ertzain aritzen baitira aldi berean. Bulegoko ertzainek atestatuak eta polizia-eginbideak egiten dituzte, eta salaketak jasotzen dituzte. Ikerketa-arloan lau lanpostu daude (hiru ertzain eta instruktorea).

Bulegoan leku gutxi dago. Hiru mahai elkarri atxikita daude, eta beste bat, instruktorearena, apur bat urrunduta; bakoitzak bere aulkia dauka. Gainera, beste mahai batean ebidentzia-kutxak daude, eta beste bi aulki daude bosgarren ertzainarentzat edo patruilakoentzat. Gainera, patruilako ertzainak bulegoan sartzen dira atestatuak uzteko. Inoiz, patruilako ertzainetako bat baino ez da sartzen bulegoan, bestearentzat ez da lekurik egoten eta (hala gertatu da bisita-egunean).

Bulegoan hainbat leihate daude (guztira zazpi leiho), baina leiho gehienak ezin dira ireki, ez baitago aski leku. Leihoetako pertsiana veneziarrak apurtuta daude, eta ondorioz ezin da erregulatu bulegoko argi naturala.

Sabaia zurezkoa da; sabaian klimatizazio-sistema bat dago, baina adierazi digute duela urte asko ez dabilela. Gurekin hitz egin duten ertzain guztiek esan dute bero handia izaten dela bulegoan, batez ere eguzkiak leihate guztietan jotzen duen egunetan. Aire-girogailu eramangarria ipini dute; aire beroa kanporatzen duen hodiaren irteera lanpostuetako baten ondoko leihoan dago, eta, ertzainek esan dutenaren arabera, hodi hori asko berotzen da eta horrek are gehiago berotzen du

Se visita la zona de la "oficina de investigación de guardia uniformada", en la prestan servicio en turnos de mañana, tarde y noche. Según informan los agentes presentes en el centro de trabajo en el momento de la visita, en el turno que más trabajadores hay es el de mañana, en el que pueden prestar servicio hasta 5 agentes. Los agentes que trabajan en la oficina realizan atestados y diligencias policiales, y recogen las denuncias. En el área de trabajo de la oficina de investigación hay 4 puestos de trabajo (3 agentes y el instructor).

En la oficina hay poco espacio, hay tres mesas juntas y otra un poco más apartada, del instructor, con sus respectivas sillas, además de una mesa donde hay cajas con las evidencias, y dos sillas para que se pueda sentar el quinto trabajador o los trabajadores de patrulla. Además, a la oficina acceden también los agentes que están de patrulla, que vienen a entregar los atestados. Sucede que en ocasiones solo entra uno de los agentes de patrulla (por ejemplo el día de la visita), ya que el segundo no tiene espacio.

La oficina está rodeada de ventanales (hay 7 ventanas en total), la mayoría de las ventanas no se puede abrir, por falta de espacio. Las ventanas tienen las persianas venecianas rotas, por lo que no se puede regular la entrada de luz natural.

El techo es de madera, y existe un sistema de climatización de techo que según informan a la actuante hace años que no funciona. Todos los agentes entrevistados manifiestan que pasan mucho calor, sobre todos los días que entra el sol por los ventanales. Se ha dotado de un aparato de aire acondicionado portátil, con una apertura de salida de aire caliente a la ventana anexa a uno de los puestos de trabajo, y según se indica a la actuante por los agentes el tubo de salida al exterior se calienta

ZERBITZU AGINDU ZKIA. Nº ORDEN DE SERVICIO: **48/0002883/19**

bulegoa.

Lanaldi gehiena eserita ematen dute eginbideak, atestatuak eta salaketak egiten ordenagailuz, normalean bulegoan, baina baita salaketa-geletan ere, eta aulkiak apurtuta daude eta ez dago modurik altuera erregulatzeko. Bisita-egunean salaketa-geletako batean ez da egon aulkirik; beste batean egon dena ezin da erregulatu, eta estuegia da, gainera, eta ertzainak esertzen direnean pistolak aulkiaren besoa jotzen du.

Agiri hau aurkeztu da: "Getxoko Ertzain-etxeko ikerketako uniformedunen bulegoaren segurtasun-ikuskapenaren txostena" (2019ko maiatzaren 9ko bisita), Laneko Arriskuen Prebentzioko teknikariak sinatua (IMQ Prevención). Txostenean lantokiaren dimentsioak aztertzen dira eta neurketa termohigrometrikokoak egiten dira; lanpostuetako aulkien egoera ere aipatzen da. Hona ondorioak:

1.- Lantokiko dimentsioak direla eta: ez da betetzen langile bakoitzak gutxienez eduki behar duen azalera libreaz 486/1997 Errege Dekretuak ezartzen duena. Ondorio horretara heltzeko, bulegoan lau ertzain aritzen direla pentsatuta egin dira kalkuluak. Nolanahi ere, gogoan eduki behar da bisita-egunean ertzainek berek azaldu dutela txanda batean bost langile ere aritzen direla aldi berean, eta batzuetan patruiletako ertzainak ere sartzen direla atestatuak eta polizia-eginbideak uztera.

Gainera, leku eskasiaren ondorioz zail da bi lanpostura heltzen (3. eta 4. lanpostuak, txosteneko zenbakien arabera).

mucho, por lo que da aún más calor.

La mayor parte de la jornada están sentados en el puesto de trabajo realizando diligencias, atestados y denuncias en el ordenador, normalmente en la oficina, pero también en las salas de denuncias, y las sillas está estropeadas por lo que han dejado de ser regulables en altura. El día de la visita en una de las salas de denuncias no había silla, y en otra la silla tampoco es regulable, y además es demasiado estrecha por lo que al sentarse los agentes la pistola choca con el brazo de la silla.

Se aporta "informe de inspección de seguridad de la oficina de investigación uniformada Ertzain-Etxea de Getxo" (visita realizada el 9 de mayo de 2019), firmado por Técnica en Prevención de Riesgos Laborales (IMQ Prevención). En el informe se evalúan las dimensiones del área de trabajo y se realizan mediciones termohigrométricas, haciendo referencia también al estado de las sillas de trabajo. Concluye lo siguiente:

1º.- En relación a las dimensiones del área de trabajo, concluye que los trabajadores no disponen de las dimensiones mínimas de superficie libre por cada trabajador que el RD 486/1997 establece. La conclusión se realiza considerando que el espacio es ocupado por 4 trabajadores. No obstante, hay que añadir que, según informan en la visita, hay algún turno en el que hay cinco trabajadores, y que además el espacio es ocupado también por agentes de patrulla que tienen que acudir a entregar los atestados y diligencias policiales.

Además recoge también que el acceso a dos de los puestos de trabajo (los numerados como 3 y 4 en el informe) está dificultado por la escasez de espacio.

ZERBITZU AGINDU ZKIA. Nº ORDEN DE SERVICIO: **48/0002883/19**

2.- Bulegoko tenperatura eta hezetasuna direla eta, tenperaturak 486/1997 Errege Dekretuak ezartzen duen muga gaintzen du. Kontuan eduki behar da neurketa maiatzean egin dela; beraz, pentsatzekoa da udan bero handiagoa egongo dela bulegoan.

3.- Ergonomiari dagokionez, eta erabilera intentsiboko aulkiak direla eta, ez da betetzen 488/1997 Errege Dekretua, eta aulkien altuera doitzeko mekanismoak ez dabilta behar bezala.

Hori dela eta, honako errekerimendu honako errekerimendu proposamen hau egiten da:

-Zaintzako ikerketako uniformedunen eremuko lanpostuak beste modu batean antolatzea, aplikatu beharreko araudia betetzeko.

-Erabilera intentsiboko aulkien altuera erregulatzeko mekanismoak konpontzea edo aulki berriak erostea, 488/1997 Errege Dekretuaren eranskineko 1.e puntuan gutxieneko ezaugarriez ezartzen dena betetzeko.

-Bulegoan sartzen den argia norberak nahi duen bezala erregulatzeko sistema bat instalatzea leihoetan.

-Neurketa termohigrometiko berriak egitea, aire girogailu eramangarria eraginkorra den edo ez egiaztatzeko.

Gainera, gomendio hauek ematen dira:

-Azterketa bat egitea argitzeko Ertzain-etxean

2º.- En relación a las condiciones ambientales de temperatura y humedad, concluye que la temperatura es superior al límite establecido en el RD 486/1997. Al respecto hay que tener en cuenta que la medición se ha realizado en el mes de mayo, por lo que es fácil suponer que la temperatura en los meses de verano sería superior.

3º.- Desde el punto de vista ergonómico, y en relación a las sillas de uso intensivo, el informe concluye que no se cumple con el RD 488/1997, y señala que no funcionan correctamente los mecanismos de ajuste de altura del asiento.

Por todo ello en el informe se proponen varias medidas correctoras:

-Realizar redistribución de los puestos de trabajo existentes en el área de investigación uniformada-guardia, a fin de cumplir con la normativa de aplicación.

-Reparar los mecanismos de ajuste de regulación de la altura del asiento de las sillas de trabajo de uso intensivo, o bien sustituir las sillas cumpliendo con las características mínimas establecidas en el apartado 1.e del Anexo del RD 488/1997.

-Instalar un sistema en las ventanas que permita regular la entrada de luz natural a demanda.

-Realizar nuevas mediciones termohigrométricas a fin de comprobar si la nueva instalación del aire acondicionado portátil es eficiente.

Además se recomienda:

-Realizar un estudio de aprovechamiento de



ZERBITZU AGINDU ZKIA. Nº ORDEN DE SERVICIO: **48/0002883/19**

erabiltzen ez diren beste lantoki batzuk zaintzako ikerketako uniformedunek lan egiteko aprobetxa ote daitezkeen.

-Txosteneko 8.2 puntuan aipatzen diren lanpostuetara (txosteneko 3. eta 4. lanpostuak) heltzeko tokia hobetzea.

Azkenik, aipatu beharra dago 2015eko urrian ikerketako uniformedunen bulegoa ebaluatzeko egin zen txostenean gomendatzen zela lanpostuak bulegoan antolatzeko modua hobetu behar litzatekeela.

ZALDUTAKO GUZTIAN AINTZAT HARTURIK, HONAKO ERREKERIMENDU HAU EGITEN DA:

1.- Neurri egokiak ezarri behar dira Getxoko Ertzain-etxeko zaintzako ikerketako uniformedunen bulegoaren dimentsioak ertzainek beren segurtasuna eta osasuna arriskuan ipini gabe eta ergonomia ondo zainduta lan egiteko behar den modukoak izan daitezen; horretarako, apirilaren 14ko 486/1997 Errege Dekretuak, lantokietako segurtasun eta osasunerako gutxieneko xedapenak ezartzen dituenak, IA eranskineko 2.1b) puntuan dimentsioez ezartzen duena bete behar da.

Errege-dekretu horrek berak honako hau ezartzen du IA eranskineko 2.2 puntuan: *"Lanpostuan dauden elementu materialen arteko tartea behar adinakoa izango da, langileek beren zereginak segurtasun-, osasun- eta ongizate-baldintza egokietan bete ahal izateko. Baldin eta, lanpostuaren berezko ezaugarriak direla eta, libre dagoen espazioa ez bada aski langileak bere jarduna behar bezala egin ahal izateko, beste espazio bat eduki beharko du erabilgarri bere lanpostutik gertu".*

otras áreas de trabajo que no se utilizan en la comisaría, a fin de reubicar el personal de investigación uniformada-guardia.

-Mejorar el espacio de acceso a los puestos de trabajo referidos en el punto 8.2 del presente informe (puestos de trabajo nº 3 y 4 del informe).

Cabe mencionar finalmente que en el informe de evaluación de la oficina de investigación uniformada realizado en octubre de 2015 ya se recomendaba como medida de mejora hacer una distribución de los puestos de trabajo.

POR LO QUE SE REALIZA LA SIGUIENTE PROPUESTA DE REQUERIMIENTO:

1º.- Deberán adoptarse las medidas oportunas para que en la Oficina de investigación de guardia uniformada ubicada en la Comisaría de Getxo las dimensiones permitan que los agentes realicen su trabajo sin riesgos para su seguridad y salud y en condiciones ergonómicas aceptables, cumpliendo con las dimensiones establecidas en el apartado 2.1b) del Anexo IA del RD 486/1997, de 14 de abril, por el que se establecen las disposiciones mínimas de seguridad y salud en los lugares de trabajo.

El mismo Real Decreto establece en el apartado 2.2 del Anexo IA: *"La separación entre los elementos materiales existentes en el puesto de trabajo será suficiente para que los trabajadores puedan ejecutar su labor en condiciones de seguridad, salud y bienestar. Cuando, por razones inherentes al puesto de trabajo, el espacio libre disponible no permita que el trabajador tenga la libertad de movimientos necesaria para desarrollar su actividad, deberá disponer de espacio adicional suficiente en las*

ZERBITZU AGINDU ZKIA. Nº ORDEN DE SERVICIO: **48/0002883/19**

Gainera, apirilaren 14ko 488/1997 Errege Dekretuak, bistartzeko pantailak dituzten ekipoein lan egitearen inguruko segurtasun eta osasuneko gutxieneko xedapenei buruzkoak, 2. eranskinen a) letran honako hau ezartzen du: *"Lanpostuaren dimentsioak eta antolamendua langileak jarrera aldatzeko eta mugitzeko modukoak izan behar dira"*.

2- Neurri egokiak ezarri behar dira bulegoko lan-giroa gogaikarria izan ez dadin langileentzat; horretarako, 486/1997 Errege Dekretuak III. eranskinen 3.a) puntuan ezartzen dituen tenperatura-mugak zaindu behar dira.

III. eranskinen 2. zenbakian ezartzen da irradiazioa ez dela izan behar gehiegizkoa, batez ere leihoen, argien eta beirazko trenkaden bidezko eguzki-irradiazioa. Horren ildotik, 488/1997 Errege Dekretuak honako hau ezartzen du 2.c) eranskinen: *"Leihoek eragingailu egokia eduki behar dute, lanpostuan jasotzen den eguneko argia moteldu eta erregulatu ahal izateko"*.

Beraz, barrunbean jasotzen den argi naturala erregulatzeko aukera ematen duen sistema ezarri behar da leihoetan.

3.- Apirilaren 14ko 488/1997 Errege dekretuak, bistartzeko pantailak dituzten ekipoein lan egitearen inguruko segurtasun eta osasuneko gutxieneko xedapenei buruzkoak, eranskinen 1e) puntuan ezartzen duenarekin bat datozen aulkia behar dira: *"Laneko eserlekua egonkorra izan behar da, eta erabiltzaileari mugitzeko askatasuna eta*

proximidades del puesto de trabajo".

Además el RD 488/1997, de 14 de abril, sobre disposiciones mínimas de seguridad y salud relativas al trabajo con equipos que incluyen pantallas de visualización, establece en su Anexo 2 a): *"El puesto de trabajo deberá tener una dimensión suficiente y estar acondicionado de tal manera que haya espacio suficiente para permitir los cambios de postura y movimientos de trabajo"*.

2º.- Se adoptarán las medidas oportunas a fin de que las condiciones ambientales de la oficina no constituya una fuente de incomodidad o molestia para los trabajadores, debiendo cumplirse con los límites de temperatura establecidos en el apartado 3 a) del Anexo III del RD 486/1997.

El apartado 2 del citado Anexo III establece asimismo que deberá evitarse la irradiación excesiva y, en particular, la radiación a través de ventanas, luces o tabiques acristalados. En este sentido, el Anexo 2 c) del RD 488/1997 establece además que *"Las ventanas deberán ir equipadas con un dispositivo de cobertura adecuado y regulable para atenuar la luz del día que ilumine el puesto de trabajo"*.

Por lo que se deberá disponer de un sistema en las ventanas que permita regular la entrada de luz natural, adecuado y regulable.

3º.- Deberán disponer de sillas que cumplan con las características establecidas en el RD 488/1997, de 14 de abril, sobre disposiciones mínimas de seguridad y salud relativas al trabajo con equipos que incluyen pantallas de visualización, en el apartado 1e) del Anexo: *"El asiento de trabajo deberá ser estable,*

ZERBITZU AGINDU ZKIA. Nº ORDEN DE SERVICIO: **48/0002883/19**

postura eroso eman beharko dizkio. Eserlekuaren altuera erregulatzeko modukoa izan beharko da. Aulkiaren bizkarraldea eraisgarria izan beharko da, eta altuera doigarria. Hala nahi dutenek eskura edukiko dute oinazpikoa”.

GAUZATZEKO EPEA:

-Egindako errekerimendua betetzeko ezartzen diren neurrien plana hilabete pasatu baino lehen aurkeztu behar da.

Derrigor betebeharreko **ERREKERIMENDU-PROPOSAMEN** honen berri prebentzio-delegatuei ematen zaie, Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko 31/1995 Legearen 43.2 artikulua dioenaren arabera.

Hori guztia, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko (10eko BOE) 31/1995 Legeko 45. artikuluan eta uztailaren 19ko 707/2002 Errege Dekretuan, Estatuko Administrazio Orokorraren arloan laneko arriskuen prebentzioari buruzko arau-hausteen aurkako neurri zuzentzaileak ezartzeko Lan eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzaitzaren Jardunerako Administrazio-Prozedura Bereziari buruzkoan, xedatutakoaren arabera (2002ko uztailaren 31ko BOE), betiere apirilaren 25eko 464/2003 Dekretuak ezarritakoari jarraiki (ekainaren 11ko BOE).

Erakunde Publikoa eta Langileen Ordezkariek ohartarazten dira alegazio-idazkia aurkeztu ahal izango dela **HAMABOST EGUN BALIODUNEKO EPEAN**, Errekerimendu Proposamen hau jakinarazten den egunaren biharamunetik kontatzen hasita, hori guztia 707/2002 Dekretuko 5.5. artikuluan

proporcionando al usuario libertad de movimiento y procurándole una postura confortable. La altura del mismo deberá ser regulable. El respaldo deberá ser reclinable y su altura ajustable. Se pondrá un reposapiés a disposición de quienes lo desee”.

PLAZO DE EJECUCIÓN:

-Se deberá aportar en el plazo de un mes la planificación de aquellas medidas que se vayan a adoptar para dar cumplimiento al requerimiento efectuado.

De esta **PROPUESTA DE REQUERIMIENTO** de obligado cumplimiento se informa a los Delegados de Prevención, en base a lo dispuesto en el artículo 43.2 de la Ley 31/1995, de Prevención de Riesgos Laborales.

Todo ello de conformidad con lo dispuesto en el art. 45 de la Ley 31/1995 de 8 de noviembre de Prevención de Riesgos Laborales (BOE del 10) y Real Decreto 707/2002, de 19 de julio, por el que se aprueba el Reglamento sobre el Procedimiento Administrativo Especial de actuación de la Inspección de Trabajo y Seguridad Social y para la Imposición de Medidas Correctoras de Incumplimientos en materia de Prevención de Riesgos Laborales en el ámbito de la Administración General del Estado (BOE de 31-7-2002), según redacción por el Real Decreto 464/2003 de 25 de abril (BOE de 11 de junio).

Se advierte al Organismo Público y a los Representantes del Personal que, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 5.5 del Real Decreto 707/2002 aplicable en defecto de normativa propia al personal civil del resto de las Administraciones Públicas (Disposición Adicional Segunda del RD 707/2002 de 19



MINISTERIO DE
TRABAJO, MIGRACIONES
Y SEGURIDAD SOCIAL

ORGANISMO ESTATAL INSPECCIÓN DE
TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL
LAN ETA GIZARTE SEGURANTZAKO
IKUSKARITZA ESTATUKO ORGANISMOA

INSPECCIÓN PROVINCIAL DE BIZKAIA
BIZKAIKO IKUSKARITZA PROBINTZIALA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

LAN ETA JUSTIZIA
SAILA
Bizkaiko Lan Ikuskaritza

DEPARTAMENTO DE TRABAJO
Y JUSTICIA
Inspección de Trabajo de Bizkaia

ZERBITZU AGINDU ZKIA. Nº ORDEN DE SERVICIO: **48/0002883/19**

ezarritakoari jarraiki, berezko araudia egon ezean gainerako administrazio publikoetako pertsonal zibilarari aplikatzekoa baita (uztailaren 19ko 707/2002 Errege Dekretuko bigarren Xedapen Gehigarria). **IKUSKATZAILE JARDULEARI** zuzendutako idazki horrekin batera, egoki irizten zaion edozein froga aurkeztu ahal izango da, hori guztia.

Prebentzioko ustezko akatsei buruz edo akats horiek konpontzeari buruz desadostasunik ez dagoelako aipatutako epean alegaziorik aurkeztu ezean, Errekerimendu Proposamena **BEHIN-BETIKO** bihurtuko da automatikoki.

Aipatutako alegazioak aurkeztuko balira, ikuskatzaile jarduleak, alegazio horiek eta egoki iritzitako txosten teknikoak ikusirik, **BEHIN-BETIKO ERREKERIMENDUA** egin ahal izango du gauzatu beharreko neurriei eta horretarako epeei buruz, aipatutako Arautegiko 5.3. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Bilbo, 2019ko ekainaren 24a

de julio) podrán presentar escrito de alegaciones en el plazo de **QUINCE DIAS HABILES** contados desde el siguiente al de la notificación de la presente Propuesta de Requerimiento, acompañado de la prueba que estime pertinente, dirigido al **INSPECTOR/A ACTUANTE**.

Si en el plazo señalado no se presentasen alegaciones por no mantener discrepancia sobre la existencia de las anomalías en materia de prevención, o sobre las medidas precisas para la subsanación de las mismas, la Propuesta de Requerimiento adquirirá automáticamente carácter **DEFINITIVO**.

En el caso de que se formulen dichas alegaciones el Inspector actuante, a la vista de las mismas y de los informes técnicos que estime necesarios podrá efectuar **REQUERIMIENTO DEFINITIVO** sobre las medidas a ejecutar y el plazo de ejecución de las mismas conforme a lo dispuesto en el artículo 5.3. del mencionado Reglamento

Bilbao, 24 de junio de 2019

LAN ETA GIZARTE SEGURANTZAKO IKUSKATZAILEA
EL/LA INSPECTOR/A DE TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL



Izpta./Fdo.: Blanca Urbón Catón